

EDUKALBOAN

ELKARTASUNAREN ALDEKO IRAKASLE SAREA. 2015. URTEA. 12. zk.

www.edukalboan.alboan.org



ZURE
JANARIAK
ESKUTATZEN
DUENA

DESBERDINTASUNA
INDIBIDUALISMOA
HOMOGENEIZATZEA
SEXUALDAKETA
BAZTERKETA
ESPLORAZIOA
KUTSADURA
POBREZIA



ALBOAN



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

EDITORIALA

ALBOAN

BILBO

Aita Lojendio, 2 - 2.
48008 - Bilbo
Telefonoa: 944 151 135
Faxa: 944 161 938
alboan@alboan.org

IRUÑEA

Barañain etorbidea, 2
31011 Iruñea
Telefonoa: 948 231 302
Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

DONOSTIA

Andía, 3
20004 - Donostia
Telefonoa: 943 275 173
Faxa: 943 320 267
alboan@alboan.org

GASTEIZ

Estenaga Apezpikua, 1
01002 - Gasteiz
Telefonoa: 945 202 676
Faxa: 945 202 676
alboan@alboan.org



www.facebook.com/alboan



@ALBOANongd

Zuzendaria

María del Mar Magallón
Publikazio koordinatzailea
Patricia Hernández

Argazkiak

ALBOAN artxiboa

Diseinu eta maketazioa

Worköholics S.L.

Lege-gordailua: SS-290-2010

Birziklatutako paperean inprimatutako
aldizkaria, %100 klororik gabea.

Jaten duguna gara?

Duela zenbait urte, hizketaldi bat izan nuen Peruko Amazoniako oihanean dagoen Santa María de Nieva herri urruneko nekazaritza-trebakuntzako ikasle gazteekin. Hizketaldi hartan, **ALBOAN**i eta gure lanari buruz zituzten galderei erantzungo geniola esan genien. Isilik egin zituzten zenbait minutu, eta gero iritsi zen lehen galdera: "**Eta, zuek, zenbat lur duzue? Zer lantzen duzue?**". Nire bidaide Pilar eta biok harrituta geratu ginen, eta honela erantzun genien: "Beno... bada, han, jende gehienak ez du lurrik, ez dugu ezer lantzen". Harrituta, begiak zabal-zabalik, hau esan ziguten: "**... orduan... zer jaten duzue? Nola bizi zarete?**".

Une horretan jabetu nintzen lehen begiratu batean uste dugun baino ondorio gehiago dituela gure gizarteetan lurrarekiko lotura galdu izanak.

Lurraz eta lurra ustiatzeko sistemaz hitz egiten dugunean, garapen-eredu bat osatzen ari gara, **gure bizimoduekin erlazio zuzena duena**. Ekoizpen intentsiboa ez da lurraz arduratzen, eta kontsumo urrun eta zabalari erantzuten dio. Ekoizpen txikiagoa, familian errotua, hura kontsumitzen duenaren kulturaren eta bizimoduaren parte da. Lehen ereduak etekin ekonomikoa lehenesten du lan duinaren eta lurraren zainketaren aurrean. Bigarren ereduari, berriz, lurra da ondasun nagusia, lur hori lantzen dutenek bizimodu duina izatea bermatzen baitu. Horrenbestez, **txanpon beraren bi aurpegiak dira ekoizpena eta kontsumoa**, eta elkar baldintzatzen dute.

ALBOANen, urteak daramatzagu Kongoko Errepublika Demokratikoko, Indiako edo Latinoamerikako nekazaritza-familiekin eta- **kooperatibekin lan egiten**: haien ekoizpen-jarduera hobetzeko laguntza ematen, **elikadura-burujabetza bermatzen** eta beren produktuak tokiko edo eskualdeko merkatuetan eskaintzeko bideak irekitzen.

Horrenbestez, galdera hau sortzen da orain: orduan, zer gertatzen da txanponaren beste aurpegiarekin? **Nola sustatu gure herritarren artean ekoizteko beste modu bati bide emango dio kontsumo arduratsua, eta tokikoa?** Zure eskuetan duzun edukalboan honen bidez, helburu horretarantz egin nahi dugu: lurrarekin zer bizi-lotura dugun gogora ekarri, eta hemen ere beste modu batera kontsumi daitekeela erakusten duten proposamenen berri eman.

Ankur. Xabier Indian; India Xabierrengan

Ankur India ezagutzeko abentura bat, esperientzia bat. Eta abentura hori Euskadiko eta Nafarroako ikastetxeetako ikasleek biziko dute **2015-2016 ikasturtean**. Programa hau Bigarren Hezkuntzako taldeentzako prestatu da bereziki, eta helburua da San Frantzisko Xabierkoak ezagutu zuen Indiako errealitatea hurbiltzea talde horiei, eta gaur egungo India ere hurbiltzea, ezagutzera emateko hango aniztasuna, kultura- eta erlijio-nahastea, emakume-mugimenduak eta mundu bidezkoago bat eraikitzeke lan egiten duten taldeak.


Programa honen oinarria espiritualtasuna da, eta hiru eguneko iraupena izango du. Hiru egun horietan, ikasleek bizi izan duten prozesuaz hausnartuko dute, eta beren ikastetxetan, familian, ingurunean... aldaketaren eragile izateko konpromiso batzuk hartuko dituzte.



Hasi berri da abentura. Proiektua diseinatzen ari dira jada, eta martxoaren 17an lehen bilera izan genuen irakasle-talde batekin, proposamenaren gako-ideiak adosteko.

Datorren ikasturtean ekimen honetan parte hartu nahi baduzu, eta zure ikastaldearekin, zure ikasleekin, etorri, jar zaitez gurekin harremanetan: María Lezáun, m.lezaun@alboan.org, edo **94 415 11 35**.

EDUKALBOAN, ALBOANen Elkartasunaren aldeko irakasleen sareko webgune berria



EDUKALBOAN da gizarte bidezkoagoa, barneratzailea eta ekitatiboa eraikitzeke eta gure munduko alde sakonen aurka borrokatzeke konpromisoa hartu duten hezitzaileen sarea. Dauden lekuan daudela, hezkuntza eraldatzailea lantzen duen pertsona-talde bat da.

Gure helburu eta amets berak dituzten hezitzaileak **SARE** honetan parte hartzera animatu nahi ditugu. Lanean ari direnak, mugitu egiten direnak, eta beren taldeetan zabaldu nahi dutenak taldekide bakoitzak asko duela esateko mundu hau eraldatzeko.

Gune hori topaketa birtualerako espazio egin nahi dugu, hezteko, informazioa jasotzeko, lantaldeak egiten ari diren lana ezagutzeko eta proposatzen diren espazioetan parte hartzeko. Azken batean, gure hezkuntza-baliabideen, gure kanpainen informazio zehatza izateko... gunea izango da.

Eta horretarako jarri dugu zuen eskura webgune berria: <http://edukalboan.alboan.org/eu/>. Zuen proposamenen, esperientzien eta kezken berri eman diezagukezue webgunearen bidez.

Nafarroa eta Nikaragua, hezkuntzak batuta. Trukea, Hezkuntzaren Aldeko Mundu Mailako Astearen baitan

Hezkuntzaren Aldeko Mailako Astearen baitan, **ALBOANek** jarduera didaktiko baten alde egin du. **Nafarroako bost ikastetxek eta Nikaraguako bost ikastetxek** parte hartuko dute jarduera horretan, beren kulturak eta iritziak partekatzeke.

Nafarroako ikastetxeek ilusioz ekin diote proiektuari. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 5 ikasle-talde lanak eta komunikazioak prestatzen hasi dira, eta beren nahien eta zaletasunen berri eman dute. Puntu gakoa hezkuntzarako eskubidearen gaineko kezka eta hausnarketak partekatzea da, bakoitzak bere ingurumartik. Itxaropena proiektuaren helburu on horretan jarrita, espero da Erdialdeko Amerikako beren kideak ezagutzeko aukera honekin gozatzea eta esperientzia ongi baliatzen jakitea.



ALBOANeko albiste hauei nahiz beste batzuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, sartu gure web-orrian (www.edukalboan.alboan.org), eta eman izena gure albiste-aldezkarian.



Kontzienteki kontsumitu

Pentsatu duzu inoiz nola iristen diren elikagaiak gure eskuetara? Eta gure mahaira? Eta pentsatu duzu elikagai bat edo beste bat aukeratuta ekonomia eta ekonomia hori sostengatzen duen eredua modu batekoa ala bestekoa egiten ditugula? Alegia, gure kontsumoaren bidez, kasu honetan, nekazaritza-produktuak kontsumituz, ekonomia alternatiboa susta dezakegula?

Baina zer da ekonomia alternatiboa?

Inoiz galdera horiei buruz pentsatu baduzu, orain duzu aukera, **zen** bidez, zenbait erantzun eta kontsumo-proposamen jasotzeko. Hala, gure kontsumitzeko moduaren bidez, ekoizpen-modu sozialki arduratsuagoak babestu ditzakegu, jardueraren eragile bakar dirua ez dutenak, eta erdigunean jendea eta haien duintasuna jartzen dituztenak. Halako ekonomietan, gizartearen parte-hartzea indartzen da, bere baitako helburutzat zehazten baita, eta ez onura ekonomikoa lortzeko bitarteko edo tresna huts bat balitz bezala. Eredü horrek berdintasunezko parte hartzea ere sustatzen du: emakumeak ditu protagonista. Gainera, lan beragatik soldata txikiagoak ematen dizkieten ereduak baztertu egiten dira, berdintasun handiagoko soldaten eta

lanaren alde egiteko. Eta emakumeen parte-hartzea ere erdigunean dago ekonomia horretan.

Nekazaritza aztertuz gero, lehen kontu deigarria da lurrak ematen dituen elikagaien **% 70-80 familia-nekazaritzatik datozela, eta nekazaritza-ustategien % 90 pertsona edo familia bakar batek mantentzen dituela**. Jarraian ikusiko dugun moduan, hori gakoa da gure ingurunean, bai ingurune hurbilean, bai ingurune urrunean, biztanleriaren elikadura-segurtasuna eta -burujabetza bermatzeko. Izan ere, etekin ekonomikoa lortzeko eta nekazaritza-lur horietatik hurbil dauden etxeetako pertsonen elikadura osasungarria bermatzeko lantzen dira lur eta labore horiek.

ZURE JANARIAK ESKUTATZEN DUENA

Zertaz ari garen hobeto ulertzeko, ekoizpen-eredu horri eta haren abantailei buruz barrutik hitz egiten diguten **Ipar eta Hegoko zenbait esperientzia ezagutzea** proposatzen dizuegu.

Hitz egin dezagun **Kongoko Errepublika Demokratikoaz**. Zoritxarrez, Bigarren Mundu Gerraren ostean heriotza gehien eragin dituen gatazka armatua izateagatik da ezaguna. Baina ez dezagun hitz egin gatazka horri buruz, baizik eta baso tropikaleko herrixka bati buruz. **Arroza modu jasangarrian ekoizten duten emakume batzuk** ezagutuko ditugu. Kooperatiba batean antolatzen dira, eta ekoizten dutenarekin lortzen dituzten irabaziak familiak hobeto elikatzeko, etxebizitzak hobetzeko, eta gaixorik dauden lankideei edo hil diren lankideen familiei laguntzeko erabiltzen dituzte.

Hitz egin dezagun, orain, **Kolonbiaz**. Eta bisitak egin eta **nekazaritza ekologikoko produktuak saltzeko antolatu duten nekazaritza-elkartearen** inguruko familia-nekazaritzaz. Sistema horren bidez, familietako belaunaldi gazteek ez dute hiri handietara joan beharrik. Eta, gainera, beren elikadura hobetzeko moduak bilatzen dituzte, lurzorua ez dute produktu toxikoekin kaltetzen, eta tokian bertan nahiz nazioartean kafea saltzea erabakitzen duten emakume-taldeen parte-hartzea bermatzen dute. Saltzeko kafea ez ezik, beren familientzako elikagaiak ere ekoizten dituzte.

Hitz egin dezagun, orain, gure inguruko edozein herri edo hiriri buruz. Hitz egin dezagun merkatuan saltzen den tokiko ekoizpenaz, baratze eta baserrietakoaz. Demagun nekazaritza-produktu ekologikoen kontsumo-kooperatiba bateko kide egin garela. Astero, tokiko ekoizpen-ekonomia

babestuz, otar bat jasoko dugu sasoiko produktuak dituen, ingurumena kutsatzen duten produkturik erabili gabe ekoiztiak. Hori da gure osasunerako onena, eta, gorputzari on egiteaz gainera, on egiten digu jakiteak jarrera horrekin lagundu egiten dugula gure lurra antolatzen, tradizioari eusten, bizimodu duinagoa helburu duten sistemak babesten. Alegia, aberastetik harago doan bizimodua babesten dugu, eta ez industria bat.

Azkenik, hitz egin dezagun bidezko merkataritzaz, arroz eta kafe horiek gure egunerokotasunarekin lotzen dituenaz. Ekoizpen horren oinarriak familia, ingurumena, ekoizpen-modu partizipatiboa eta ekoizpenarekin lortzen diren irabaziak kudeatzeko moduak dira. Horrek bermatzen digu haurrek ez dutela lan egiten produktu horiek ekoizten, eta gizon-emakumeek soldata bera jasotzen dutela, zer sexutakoak diren kontuan izan gabe.

ALBOANek jendearen zerbitzura dagoen ekonomia babestu nahi du, horretan sinesten baitugu. Ekonomia-jardueraren erdigunean pertsonak eta haien beharrak jartzen dituen, emakumeak kontuan hartzen dituen, emakumeei protagonismoa ematen diena, ingurumenaren eta biziaren zainketa irabazi ekonomikoak bezain garrantzitsu dituen. Azken batean, bidezko eta elkartasunezko mundu bat eraikitzeko ekonomia.

Zuk ere entzuten baduzu dei hori, animatu egiten zaitugu edukalboan hau irakurtzen jarraitzea eta gure proposamenak praktikan jartzera.

Izan ere, posible da bestelako ekonomia bat, eta jada abian da. Bat egingo duzu kontsumo arduratsu eta kontzientearekin?



Zure janariak eskutatzen duenari

buruzko proposamen pedagogikoa

6 urtera arte

Udaberriko askaria

Iturria: Munduko Hiritarrok. Kulturartekotasuna. Haur Hezkuntza.

Udakena: <http://www.educacion.alboan.org/eu/activities/3187>

Materiala: udaberriko frutak, mahai-zapiak, aho-zapiak, orriak, pegatinak (gometak).

Iraupena: frutak ikusteko, 40 minutu; eta askaltzeko, ordu eta erdi.

Garapena: Askaria prestatu udaberriko frutekin. Hasteko, etxetik udaberriko fruta bat ekartzeko eska dakieke, eta zer ekarri duten ikusten joan. Fruten argazkiak ere erakuts diezazkiekegu, fruta bakoitzak zer izen duen eta nondik datorren (lurrean sortzen da, zuhaitzetik hartzen da...) identifikatzen ikasteko.

Mahaian jarri frutak, eta orri bana eman ikasleei. Orriak bi zutabe izango ditu: zutabeetako batean, aurpegi alai bat egongo da marraztuta, eta, bestean, aurpegi triste bat.

Ikasleek ordenan dastatuko dituzte frutak. Dastatu dutenean, gomet batez adieraziko dute orrian gustatu zaien ala ez. Ikasle guztiek fruta bat dastatu dutenean, gustatu zaien ala ez galde-tuko diegu, eta arrazoiak azaltzeko eskatu. Gero, hurrengo fruta dastatuko dute. Fruta guztiak dastatu ondoren, zein gustatu zaien gehien, eta zein, gutxien galdetuko diegu.

Udako, udazkeneko edo neguko askaria ere presta daiteke.



6 - 12 urte

Frutak identifikatu eta izendatu

Iturria: Munduko Hiritarrok. Kulturartekotasuna. Lehen Hezkuntza.

1. eta 2. zikloa. Goazen azokara!

<http://www.educacion.alboan.org/eu/activities/3244>

Materiala: "Askotariko frutak" fitxa, kartoi mehea, kola, artaziak, errotuladoreak, fruten argazkiak

Iraupena: 50 minutuko bi saio.

Garapena: Hasteko, biribilean egingo da jarduera. Txaloen erritmoan, aukeratu den gaiarekin erlazioatutako hitzak esateko eskatuko zaie, eta, gero, zer fruta ezagutzen dituzten esateko.

Esaten diren frutak idazteko eskatuko zaie lau ikasleri, zerrenda bat egiteko. Talde-dinamikak fruta ezagunenak edo hurbilekoenak izendatzea eragin dezake; joko amaituta, eta taldeetan banatu aurretik, zerrenda osatu.

Jarraian, talde bakoitzak fruta bakoitzaren argazkia eta izena jasotzen dituen txartela egingo du.

Zenbait hizkuntzatan egin daiteke jarduera hau, baita zailtasun-maila desberdinekin ere: adibidez, bokalez hasten diren hitzak edo kontsonantez hasten direnak.





Heziketa-material gehiago aurkitu dezakezu <http://www.educacion.alboan.org/eu> web-orrian edo gure egoitzaren batekin harremanetan jarrita. (2. or. IKUSI)

12-18 urte

Bidaia zaharrak eta bidaia berriak: Produktuak

Iturria: Aldatu mundua, mundua aldatu egiten da. San Frantzisko Xabierkoa, mundua aldatu zuen pertsona bat
<http://www.educacion.alboan.org/eu/activities/2757>

Materiala: Interneterako konexioa.

Iraupena: 50 minutu.

Garapena: Arrunki kontsumitzen den produktu bati buruzko ikerketa egin: arrunki jaten duten elikagai ontziratatu bat. Jarduera honen helburua da produktuari buruzko informazio hau ikertzea: non ekoitzi den; non paketatatu den; nola garraiatu den; zer enpresak banatu duen; non merkaturatu den; zer marka komertzialekoa den, eta enpresa zer herrialdeetako den.

Taldeka, arrunki jaten duten elikagai bat aukeratuko dute ikasleek, eta hau ikertu: jatorria, prozesatzeko modua, ontziratze erabili diren materialak, ekoizteko erabili diren produktuak...

Ondoren, ikerketaren emaitzen berri emango dute taldeek.

Eramateko kafearen adibidea jar daiteke:



- Nondik dator kafea?
- Nork ekoizten du?
- Badakigu zer lan-baldintzatan ekoizten den?
- Zer-nolakoa da katea, ekoizten denetik gure mahaira iristen den artekoa?

Ontzia,

- Zerez egina da?
- Non egiten da?
- Zenbat gauzatarako erabiltzen da?



Frutak





Material guztiak
ALBOAN-en
Baliabide Zentroan
aurkitu daitezke:
centroderrecursos.alboan.org/eu
edo gure egoitzaren batekin
harremanetan jarrita. (2. or. IKUSI)

ELKARRIZKETA

**Zure janariak
eskutatzen duena
ezagutzeko baliabideak**



ZERGATIK KONTSUMITZEN DUGU?

Kontsumo kontziente, arduratsu eta
eraldatzailearen gaineko orientabide didaktikoak
Euskadin, genero ikuspegiaren alabapuntutik



"Zergatik kontsumitzen dugu?"
Concepción Piñeiro eta
Carlos Ballesteros García.
Donostia: Setem, 2012.

Merkatu Soziala

Bestelako ekonomia bizi hobe baterako




Mercado Social

Otra economía para una vida mejor

**"Merkatu soziala.
Bestelako ekonomia
bizi hobe baterako"**
José Manzaneda.
Bilbao: REAS;
Euskal Herriko
Merkatu Soziala,
2013.

Pottoko hipermerkatuan

Pello Añorga
marrazkiak: Jokin Mitxelena



"Pottoko hipermerkatuan"
Pello Añorga, Jokin Mitxelena
Donostia: Elkar, 2010

"San Cernin ikastetxeko bidezko merkataritzako boluntario-taldea ikastetxean egiten diren zerbitzu- jardueren funtsezko zutabea da egun"

Pablo Idoate, Iruñeko San Cernin Ikastetxeko Bigarren Hezkuntzako Bidezko Merkataritzaren koordinatzailea

Ostegunetan, jolas-garaia iristean, Batxilergoko ikasle-talde bat zain egoten da Bidezko Merkataritza taldeak korridorean produktuen salmahaia noiz jarriko. Egun horretan, ogitartekoen lekua Ekuadorreko txokolatez eginiko gailetek, jukazko patatek eta sesamo-barrek hartzen dute.

Noiz hasi zen lanean Bidezko Merkataritzako taldea?

Duela zazpi urte sortu zen, Erlijioiko irakasle Guadalupe Miralen ekimen batetik. Izan ere, produktu horien berri eman nahi izan zion hezkuntza-komunitateari. Boluntario-talde txiki bat sortu zuen hasieran, eta produktuak ikastetxeko irakasleei eskaintzen zizkien. Bi urteren ondoren, nik hartu nion txanda, eta produktuak Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei ere saltzen hasi ginen. Hurrengo urtean, Chris Kyprianou eta Inma Ascuncek ekimena Lehen Hezkuntzara ere zabaltzea erabaki zuten.

Nola antolatzen duzue taldea?

Proiektuari Gizarte Zientzietako irakasgaiaren ekiten zaio urtero, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan. Ikasleek Bidezko Merkataritza zer den ikasten dute: zergatik sortu den, eta zer abantaila dituen. Kontsumo arduratsua ere lantzen da. Ondoren, ikastetxeko Bidezko Merkataritza taldean boluntario aritzeko aukera ematen zaie.

Astean behin, salmahai bat kudeatzen dute, eta askotariko produktuak eskaintzen dizkiete irakasleei nahiz ikasleei. Jardueraren gakoetako bat da **ALBOAN**en babes etengabea; izan ere, trebakuntza emateaz gainera, produktuen hornikuntzaz ere arduratzen da.

Badu onarpenik taldearen lanak ikastetxean?

Zazpi urteren ostean, boluntariotza-jarduera garrantzitsuenetako bat da San Cernin ikastetxean. Arrakasta handia du ikasleen eta irakasleen artean, eta hainbat balioren isla da: elkartasuna, talde-lana, autonomia, erabakiak hartzeko ardura eta garapen jasangarria, bai ekonomiarik dagokionez, bai gizarteari dagokionez.

Zer asmo dituzue esperientzia hau zabaltzeko?

Ikasturte honetan, Informatikako irakasle Susana Aparicio, bere ikasleekin batera, sareko denda bat antolatzen ari da, ikastetxeko familiek etxetik erosi ahal izan ditzaten eskolan saltzen diren produktuak. Hala, Bidezko Merkataritza ikastetxeko hezkuntza-komunitate osora (irakasleak, familiak eta ikasleak) iritsiko da.

Gainera, Iñaki Jáuregui eta biok Europako Fair Share proiektuan parte hartzen dugu, zeinaren helburua baita plataforma bat sortzea Bidezko Merkataritzako trebakuntza sarean emateko. Proiektu handi eta ederrak dira, eta ziur gaude Bidezko Merkataritzaren ziguilak urte luzez jarraituko duela San Cernin ikastetxearekin bat egiten.